


UNANUE ZAR BASERRIA
C MAILA

ERROTAZAR BIDEA 142



Egile eta data ezezagunak.

Deskribapena

2003an su hartu zuen eta ondoren berreraiki zen eraikina. Harlangaitz hormako lau fatxadak mantendu ditu. Fatxaden alboak hormigoizko uztaiekin errematatuta daude, fatxada nagusiko goialdea izan ezik. Bertan adreilu gorri errematatua dago. Dena den, aurretik etxeko fatxadetan eta inguruan –bere perimetroan espaloiak eraiki zituzten– hainbat aldaketa eginda zeuden. Leihoen azpaduretan eta sarrerako alboko arku batean, harlanduzko elementuak eta harlangaitz hormaren fabrika nabarmentzen dira. Horien artean, elementu azpimarragarrienak dira banakako formatuko arku lobulatu txikiak eta bikiak, atzealdeko fatxadaren harrizko leihoburuetan landuak.

Babes erregimena.

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: zurezko bilbadura; bi arkuak beheratuak.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; gainerako arkuak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.